

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Atal honetan gure negozioak ondo funtziona dezan beharrezkoak izango ditugun aktibo nagusiak deskribatuko ditugu. Horien bitartez balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta azkenik diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak.

Lau bazkide gara eta tuperrak sortzea da gure lana. Enpresan lan egiten dugunok giza baliabidea osatuko dugu. Gure helburua aurrera eramateko aktibo nagusi asko daude eta kasu honetan garrantzitsuenak hauek dira: Itsasok tuperren diseinu desberdinak sortzeko **sormena** du. Horretarako, tamaina, koloreak, erabilgarritasuna... izan ditu kontuan. Bestetik, Anek, bere informatikarako **ezagutzak** erabiliz, gure produktuak saltzeko web-gune pertsonalizatu bat sortuko du. Ania, hornitzaileekin harremanetan jarriko da eta horrela gure produktua sortzeko beharrezko lehengaiak lortuko ditu. Azkenik, behin produktua sortuta daukagunean, Liernik gure produktua saldu ahal izateko beharrezkoa den handizkari desberdinekin hitz egingo du. Ondorioz, **gaitasun komertziala** izango du. Hala ere, bakoitzak bere zeregina eduki arren, elkar lagunduko gara, gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, kontuan izanda talde lanean guztia hobeto ateratzen dela.

Hasiera batean, ezaguna dugun administrari bati laguntza eskatuko diogu gure finantza baliabideak aurrera eraman ahal izateko. Berak aholkatuko digu bazkide bakoitzak zenbateko diru kopurua jarri behar duen enpresa martxan jartzeko. Bakoitzak gutxi gorabehera 5000 euro aportatuko ditu. Behin enpresa handitzen denean edo lan

karga handitzen denean, administrari bat kontratatzea pentsatzen dugu enpresako kontuak eramateko.

Lan hori guztia egiteko zenbait **baliabide fisiko** ditugu. Alde batetik, Abaltzisketan dagoen LogikaLine enpresak bulego bat utziko digu. Izan ere, herri txiki honek gazteei behar dituzten baliabideak eskeintzen dizkie gazteria bultzatzeko. Horrela, LogikaLinek erabiltzen ez duen bulego bat utziko liguke. Bertan Itsasok bere bere diseinuak egin ahal izango ditu, eta kontratatuko dugun Ikerkuntza Garapen eta Berrikuntza (I+G+B) enpresaren bidez produktua garatuko dugu. Jarduera hau aztertzen aritu gara eta guk garatuko dugun arloa garapen esperimentalekoa izango da, hau da, ezagutza teorikoetan oinarrituz, produktu berriak sortu eta daudenak hobetzeko antolatutakoak. Gainera, egunero-egunero web-gunea eguneratuko dugu, horretarako ordenagailu bat izango dugularik. Egin beharreko beste jarduera bat hornitzaileekin kontaktuan jartzekoa da eta bestetik gure produktua saltzea dagozkion bezeroak aurkituz, eta horretarako Aniaren eta Lierniren lanerako mugikorrak kontratatuko ditugu. Horretaz gain, telefono fijo bat ere kontratatuko dugu eta zenbaki hori web-gunean azalduko da. Gainera, auto bat eta furgoneta bat izango ditugu.